



## IRABAZI ITURRIAK

GREENBOTTLEren irabazi iturriak botilen salmenta eta hauen birkargatetik lortuko dira. Guztiak ordainketa bakarreko irabazi iturriak dira.

- **Botilen salmenta:** Webgunearen bidez erosten diren botilen ordainketatik datorren diruari deritzo. Botila bakoitzak 10€-ko oinarrizko prezioa izango du. Bezeroak oinarrizko hainbat kolorezko botilen artean hautatu ahal izango du erosi nahi duena. Prezio honen trukean botila bera eta honen garraioa takila automatizaturantz ordainduko da.
- **Botilen pertsonalizazioa:** Oinarrizko koloreetatik desberdinak diren diseinu edo kolore bereziak nahi dituenak 2€-ko gehigarria ordaindu beharko du erositako botila bakoitzeko, hau da, botilaren oinarrizko prezioa (10€) eta pertsonalizatzearen gehigarria (2€) ordaindu beharko du. Horrez gaindi, bere gustuko esaldia edota izena botilaren kanpoaldean txertatzeko aukera izango du gehigarri hau ordaintzearen truke.
- **Botilen birkarga:** Behin botila erosita, bezeroak gure birkarga makinak erabili ahal izango ditu. Birkarga guztiek 0,30€-ko prezioa izango dute, freskagarriaren zaporea kontuan hartu gabe eta bezeroak nahi adina aldiz birkargatu ahal izango du bere GREENBOTTLE botila.



## ORDAINKETA METODOAK

Ordainketei deritzenez, aurretik azaldutako zerbitzu guztiak webgunearen bidez egin ahal izango dira ohiko internet bidezko ordainketa metodoak onartuz (PayPal, kreditu eta debitu txartela, iupay, etab.).

Azkenik, eta birkargei deritzenez, birkargak ez dira zuzenean makinan ordainduko, baizik eta botila bakoitzak bere *barcode* desberdina izango du eta makinak hau irakurtzean zenbateko saldoa daukanetik kenduko du

birkargaren balioa. Saldoaren birkarga web gunearen bidez egin ahalko da baina baita ere makinetan.

Hurrengo taulan ikusi dezakezue diru-iturrien banaketa xehetasunean:

DIRU ITURRIAK			1.hilabetea		2.hilabetea		3.hilabetea	
	Prezioa		Ud.	(€)	Ud.	(€)	Ud.	(€)
Botilen birkargatzea	0,30	(€/birkarga)	74771	22431,36	195153	58545,85	254312	76293,54
Botilen salmenta	10,00	(€/ud.)	4673	46732,00	7524	75238,52	3697	36974,36
Botilen pertsonalizazioa	2,00	(€/botila)	1402	2803,92	2257	4514,31	1109	2218,46
<b>GUZTIRA (Hilabeteko)</b>				<b>71967,28</b>		<b>138298,68</b>		<b>115486,36</b>

DIRU ITURRIAK			4.hilabetea		5.hilabetea		6.hilabetea	
	Prezioa		Ud	(€)	Ud	(€)	Ud	(€)
Botilen birkargatzea	0,30	(€/birkarga)	295131	88539,45	320712	96213,55	332990	99897,12
Botilen salmenta	10,00	(€/ud.)	2551	25512,31	1599	15987,71	767	7674,10
Botilen pertsonalizazioa	2,00	(€/botila)	1599	3197,54	480	959,26	230	460,45
<b>GUZTIRA (Hilabeteko)</b>				<b>117249,30</b>		<b>113160,53</b>		<b>108031,67</b>
<b>GUZTIRA (Seihilabetea)</b>								<b>664193,82</b>